

HELDU DEN AZAROAREN 17KO **UDAL HAUTESKUNDEETARAKO AGINDUAK**

Irailaren 20ko 538/2019 Errege Dekretuak, irailaren 24ko EAO n (229. zk) argitaratu zenak, udal hauteskundearen deialdia egin du heldu den azaroaren 17rako.

Une honetatik aitzin, hauteskunde-prozesuak berezkoak dituen jardun askoren epe kontaketa hasi da, besteak beste, hautagai-zerrendak aurkezteko epearena, hauteskunde-errola jendaurrean jartzekoa eta hauteskunde-mahaiak osatzekoa, etab.

Hauteskunde hauetarako garrantzitsua da kontuan hartzea Hauteskunde Batzorde Zentralaren irailaren 25eko 10/2019 Agindua, Hauteskunde Batzordeen, mahaien eta abarren inguruko xedapen zehatzak baititu.

Segituan, informazio gehiago zehaztuko dugu hautagai-zerrendak aurkezteari eta hauteskunde-prozesuari dagokionez udalak dituen betebeharren gainean.

1.- HAUTAGAI ZERRENDAK AURKEZTEA

Alderdiez, koalizioez eta alderdien federazioez gain, beren hautagai-zerrenda aurkez dezakete hautesle-elkarteek ere. Azken horiek udalerriko hautesle-errolan izena emana duten hautesleen sinadura-kopuru bat behar dute, eta sinadura horiek notarioak edo udaleko idazkariak egiaztatuko ditu.

5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, hauteskunde-errolan izena emanda dauden %1etik beherakoa izanen ez den sinadura-kopuru behar da, betiere, aukeratu beharreko zinegotzien kopuruaren halako bi baino gehiago denean sinatzaileen kopuru. 5.001 biztanletik 10.000 biztanle artekoetan, gutxienez 100 sinadura. 10.001 biztanletik 50.000 biztanle artekoetan, gutxienez 500 sinadura. Iruñean, gutxienez 3.000 sinadura.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan xedatuarekin bat, alderdiek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarteek ezin dute hautagaitzarik aurkeztu baldin eta judizialki legearen kontratatzat jo eta desegin edo bertan behera utzitako alderdi politiko baten jardunari jarraitzen badiote edo hura ordezkatzeko badute. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da funtsezko antzik dagoen hautagaitzak zuzendu, ordezkatu edo administratzen dituzten pertsonen egituren, antolamenduaren eta funtzionamenduaren artean, edo finantzabideen edo baliabideen jatorriaren artean, edo beste edozein gauza aipagarri badagoen, jarraipen hori edo ordezkatzeko hori badagoela pentsatzeko bide ematen duenik, hala nola indarkeria edo terrorismoa babesteko jarrera.

Kontuan hartu behar da, halaber, 3.000 biztanletik gorako udalerrietan nahitaezkoa dela gizonen eta emakumeen parekotasunik izatea hautagaitzetan, halako eran non sexu bakoitza gutxienez %40 izanen baita zerrendan, bat eginik Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan egin aldaketarekin. Agindua zehazten duenez, %40ko gutxieneko proportzioari eutsi behar zaio bost postuko tarte bakoitzean. Orobat,

zerrendaren azken tarteak bost posturik ez duenean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasun hori ahalik eta gehien hurbilduko da orekara, nahiz eta zerrenda osorako eskatzen den proportzioari eutsiko zaion. Gainerako udalerriei dagokienez, zerrenda paritarioak kontuan hartzen ahal dira hautagai-zerrendak eratzean.

Hautagaitzak urriaren 9tik 14ra bitarte aurkeztu behar dira, biak barne, zein bere Eskualdeko Hauteskunde Batzordean. Kasu guztietan, aurkezpen-idazkiak honako hauek jaso behar ditu:

Argi eta garbi adierazi behar dira alderdiaren, federazioaren, koalizioaren nahiz talde sustatzailearen izena, siglak eta ikurra.

b) Hautagaien izen-deiturak (aukeratu beharreko karguak adina), baita ordezkoenak ere, hala badagokio. Ordezkoari dagokienez, esan beharra dago ez direla derrigorrezkoak. Ordezkoak sartzea erabakiz gero, ez dira 10 baino gehiago izanen.

Adierazi beharko da zein ordenatan joanen diren hautagaiak, eta, hala badagokio, ordezkoei ere bai.

c) Hautagaien hautagai-zerrenda onartzen dutela dioen aitortpena.

d) Hautagaien hautagarriak direla egiaztatzen duen dokumentua.

Horri dagokionez, esan behar dugu ezen, azken udal-hauteskuendetan bezala, hautagarriak izan daitezkeela, Espainiako herritarrekin batera, Espainiako nazionalitatea ez izanik ere, Europar Batasuneko herritar izaera duten eta Espainian bizi diren pertsonak, eta, halaber, itun bitartez beren herrialdeko udal-hauteskuendetan espainiar herritarrei hautagai izateko eskubidea ematen dieten herrialdeetako herritarrek ere. Horrenbestez, Hauteskunde Batzorde Zentralak berak emandako jarraibideen arabera, komenigarria da batzuek eta besteek aurkeztu beharreko dokumentuak adieraztea.

1.- *Espainiako herritarrei dagokienez:*

- Hautagai bakoitzaren **nortasun-agiriaren fotokopia** soilak.
- **Hautagai bakoitzak paper arruntean sinatutako idazkia, non zinpean aitortuko baitu ez duela inolako ezgaitasunik hautagai izateko, eta ez dagoela hautatua ez izateko arrazoirik. Halaber, berariaz onartu beharko du bere hautagaitza.**

Aipatu idazkia idazki bakar bat izan daiteke, hautagai guztiek sinatua, edo hautagaien sinatutako idazki bana. Bietan ere, onartuko da idazki bakar batean nahiz bakoitzak bere idazkian egitea aipatutako zinpeko adierazpenak eta hautagaitzaren onarpena.

2.- *Europar Batasuneko herritarrei dagokienez eta, Espainian bizi izanda, beren herrialdeko udal-hauteskuendetan espainiar herritarrei hautagai izateko eskubidea ematen dieten herrialdeetakoak diren herritarrei dagokienez.*

- Hautagaiaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia arrunta.

- Hautagaiak sinatutako adierazpen formala, non jasoko baitira: hautagaiaren nazionalitatea, Espainian duen helbidea, hautagaiak ez duela gabetua bere jatorriko Estatuan hautagai izateko eskubidea, eta jatorrizko herrialdean izan duen azken helbidea.
- Espainian hauteskundeetan botoa emateko eskubidea gauzatu nahi duela adierazitakoarekin bat, hautesle-errondan izena emana duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

e) Hautesle-elkarteen kasuan, horiek sustatzen dituztenen egiaztagiria (horien kopurua arestian aipatu dugu).

f) Hautesle-elkarteen kasuan, hautagai-zerrendaren ordezkarien izendapena.

Ordez kariaren eginkizunak izanen dira:

- Hauteskunde-mahaietarako artekariak izendatzea eta akreditatzea. Izendapena hauteskundeak baino hiru egun lehenago arte egin daiteke. Artekaria izateko, hauteslea izan eta hautesle-errondan izena emanda egon behar da. Ez da nahitaezkoa izanen izena emanda egotea beren eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutiko erroldan.

Aurrekoarekin bat, izena emanda ez badaude bere eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutian, eskualdeko hauteskunde-batzordeak eskatu beharko dio Hauteskunde Erroldaren Bulegoari hautesle-errondan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria premiazotasunez igortzea, salbu eta artekari izendatua izan denak alde aurretik aipatu ziurtagiria erakusten badu.

Hauteskunde Batzorde Zentralaren urtarrilaren 23ko 1/2019 Aginduarekin bat, zeina artekarien botoari buruzkoa baita hauteskunde-prozesu batzuk batera egiten diren kasuetan, artekariak zer mahaitan dauden akreditaturik, horretan eman beharko dute botoa, betiere deitutako prozesu guztietan bozkatu behar duen hauteskunde-barrutiaren barnean badago mahi hori, eta hori betetzen ez bada prozesuetako batean, posta bidez bozkatu beharko du guzti-guztietan.

- Ahduna izendatzea, hautagaizaren ordezkari izan dezan hauteskundeetako ekitaldietan eta operazioetan (adinez nagusi den edozein herritar izan daiteke ahduna, baldin eta bere eskubide zibil eta politikoak indarrean baditu).

Hautesle-elkar teek, hautagai-zerrenda aurkeztu eta hurrengo bi eguneko epean, taldearen administratzailea izenda dezakete Probintziako Hauteskunde Batzordearen aitzinean. Kargu hori adinez nagusi den edozein herritarrek bete dezake, eskubide zibil eta politikoak indarrean baditu.

1/2003 Lege Organikoaren bosgarren artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ezin izanen dira hauteskunde-artekari izendatu kondenatuak izan direnak epai bidez, hura irmoa ez izanik ere, matxinada edo terrorismo delituengatik nahiz Estatuko instituzioen aurkako delituengatik, baldin eta epaiak, zigor-legedian ezarritako baldintzetan, hautagai izateko eskubidea gauzatzeko gaitasungabetzea ezarri badie.

Hautagaitzaren ordezkaria ere izan daiteke administraria. Haren eginkizuna da hautagaitzaren kontabilitatea eramatea hauteskunde kanpaina, Kontabilitatearen Plan Orokorrekin bat, kanpaina egin gastuengatik ematen diren dirulaguntzak lortzeko geroago.

Administrariak banku kontu bat ireki behar dute, hauteskunde kanpainako funts guztiak hor sartzeko, eta, haren bitartez, administrariak ordainketa guztiak egiten ditu. Probintziako Hauteskunde Batzordeari jakinarazi beharko zaio kontua ireki dela, ireki eta hurrengo hogeita lau orduko epean. Hauteskundeak egin eta ehun egunetik ehun eta hogeita bostera bitarteko epean, alderdiek, koalizioek edo elkarteek, dirulaguntzak jasotzeko betebeharrak konplituak badituzte edo aurrerapenak eskatuak badituzte dirulaguntzen kargura, kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkeztuko dute modu telematikoa Kontuen Auzitegian, hura fiskalizatzeko eta gero kasuan kasuko dirulaguntza ordaintzeko.

Urriaren 16an argitaratuko dira NAOn aurkeztutako hautagaitza guztiak.

Urriaren 22an argitaratuko dira, NAOn ere, onartutako hautagaitzak.

- **Hauteskunde gastuaren muga**

Garrantzitsua da kontuan izatea zein den hauteskunde gastuaren muga eta zer zehapen ezar daitekeen hura gainditzeagatik.

Hauteskunde-barruti bakar batean aurkeztzen diren hautesle-elkarteak edo alderdi txikiak daude muga horiek ukitura nagusiki, zeren, hauteskunde gastuaren gehieneko muga kalkulatzeko, 0,11rekin biderkatu behar baita biztanle kopurua. Muga orokor horren barnean, sartuta daude kanpoko publizitatearen gastuak eta prentsa eta irratia publizitatearenak, zeinek ezin izanen baitute gastuen gehieneko mugaren %20 gainditu.

Muga horiek %10 edo gehiago gainditzea oso arau-hauste astuntzat jotzen da, astuntzat %3tik %10era bitarte gainditzen bada, eta arintzat, %1etik %3ra bitarte gainditzen bada. Arau-hauste horiek 50.000, 25.000 edo 5.000 euroko isunak ekarriko dituzte gutxienez, hurrenez hurren.

Halaber, kontuan hartu behar da hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera jasotzen diren dirulaguntzak (270,90 euro hautatutako zinegotzi bakoitzeko eta 0,54 euro lortutako boto bakoitzeko) ezin dira handiagoak izan aplikatu beharreko gastu muga baino.

Ondoko estekan argibide gehiago daude ikusgai gai horren inguruan.

<http://www.juntaelectoralcentral.es/cs/jec/documentos/FolletoTCuGastosElectorales.pdf>

- Beste gai garrantzitsu batek ukitzen ditu hauteskundeetan aurkeztzen diren hautesle-elkarteak, Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzearen 4ko 4/2019 Foru Lege onetsi berriaren ondorioz: Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraztea elkartzeko asmoa dutela, Eskualdeko Batzordeko kideen izendapenaren ondorioetarako, aurreikusten bada eskualdeak legegintzaldi honetan eratuko direla. Udal hauteskundeak egin baino lehen jakinarazi behar zaio hori Hauteskunde Batzordeari, idatziz.

Aukera hori foru lege horren 376. artikuluan dago jasota.

2.- UDALAREN BETEBEHARRAK HAUTESKUNDE PROZEDURAN

- Hautesle-errola iragan 2019ko maiatzaren 26an erabilitakoa izanen da eta, beraz, ez da errola zuzentzeko eperik ireki beharko.
- Hauteskunde Erroldaren Bulegoak, ordea, dagokien toki entitateen erroldaren ale berri bat eman beharko die hautagaitzetako ordezkariari, datuak tratatzeko aukera ematen duen euskarrian. Halaber, dagokien toki entitateetako hautesleei errolda-txartel berriak helarazi beharko dizkie.
- Hauteskunde atalak, lokalak eta hauteskunde mahaiak maiatzeko udal hauteskundeetan erabilitakoak izanen dira.
- Hortaz, ez da mahaietarako zozketarik egin beharko baina udalek Hauteskundearen Legeko 27. artikulua aurreikusten duen jakinarazpena berriro egin beharko dute.
- Udalek behar bezala seinalezatu behar dituzte hauteskunde atal eta mahai bakoitzari dagozkion lokalak.
- Hauteskunde-kanpainako ekitaldiak antolatzeko lokal ofizialak eta doako erabilerako leku publikoak gordeko dituzte (eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar zaio **irailaren 25etik urriaren 4ra bitartean**), baita kartelak paratzeko doako leku bereziak ere (eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar zaio **irailaren 25etik urriaren 1era bitartean**).

3.- HAUTESKUNDE KANPAINA

Hauteskunde-kanpainak hamabost egunez iraunen du, ostirala den **azaroaren 1eko gauerdiko zeroetatik ostirala den azaroaren 15eko gauerdiko hogeita lauak arte**. Epe horretatik kanpo, debeku da ezein hauteskunde-propagandaren ekintzarik egitea.

Era berean, ezingo da hauteskunde kanpainako ekitaldirik egin larunbata den azaroaren 9ko gauerdiko zeroetatik igandea den azaroaren 10eko gauerdiko hogeita lauak arte, datozen hauteskunde orokorretako hausnarketa egunei eta bozketaren funtzionamendu egokiari oztoporik ez egiteko.

4.- HAUTESKUNDE MAHAIK ERATZEA, BOZKATZEA ETA ZENBAKETA

Hauteskunde-mahaia **azaroaren 17ko goizeko zortzietatik zortzi eta erdietara** eratuko da, honako hauekin: mahaiburua, bi mahaikideak eta hautagaitzetako ordezkariak behar bezala akreditatutako artekariak.

Mahaia eratzeko akta zortzi eta erdietan bete beharko da.

Bozketan, une oro, bi mahaikide egonen dira.

Bozketa goizeko bederatzietan hasiko da, eta arratsaldeko zortziak arte iraunen du, etenik gabe.

Botoa sekretua da, eta hautesleak aurkeztu diren hautagai-zerrenden artean aukeratu beharko du.

Hauteskunde-mahaietan egiten den zenbaketa publikoa da, eta zenbaketa horren akta bete behar da, hauteskunde-legediak ezarritako terminoetan.

Eskualdeko hauteskunde-batzordeak izanen du zenbaketa orokorra eta hautagai-hautetsien izendapena egiteko eskumena.

Udal hauteskundeak beheko taulan jasotako legeak betez egingen dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Federazioaren web orrian jaso dezakezue (www.fnmc.es).
“Hauteskunde Partzialak” izeneko atalean hauteskunde-egutegia aurki daiteke, bai eta hauteskundeei buruzko hainbat informazioa ere, unean-unean eguneratuko dena.